

185 positibo berri
9.076 positibo guztira*
hildako EAEn
UCIn EAEn

302 positibo berri
12.236 positibo guztira
hildako
UCIn Nafarroan

*HERNANIN 243 (+8), ASTIGARRAGAN 51 (+0)

(Nafarroako Osasun Saila)



'Incansables'en 50 urteko ibilbidea

URUMEA
INCANSABLES

8-11



Sudur gorriekin, «mundu grisa» aldatzera datoz

HERNANI
PAILAZOAK

6



«Helburua
postua irabaztea
eta disfrutatzea»

HERNANI
ARRAUNA

14

«Normaltasun berria», eskoletan

Astelehenean hasi zuten Urumea Balarako eskolek ikasturte berria. Hala ere, ez da aurreko urteetako hasiera berbera izango, errutina aldatu egin baita, eta bete beharreko neurri ugari ezarri dira zentroetan.

2-5



Anfibio eta narrastiak ezagutzeko irteera, gaur

HERNANI
IRTEERA

6



«Hernanin euskararen alde egiteko gogoia eta nahia dago»

HERNANI
EUSKARALDIA

7



Aurtengo txapelketako azken partidua, Barrenetxeak

HERNANI
ERREMONTEA

15

Errugbi denboraldia oraindik ere zalantzan

HERNANI
ERRUGBIA

15

Zure bizitza **EUSKARAZI!**

Matrikula irailaren 18ra arte irekita

Euskaltegia etortzeko denbora arazoak dituzu?
Astean 2 eguneko moduluak baditugu.

Dirulaguntza handiak:
% 70 Hernanin erroldatuta bazaude
% 90 langabetu, ikasle edo erretiratuentzat

ZORIONAK!!!
HABEren A1, A2, B1, B2 edo C1 mailako titulua ateratu duzuen guztioi!

Karobieta 63, Hernani
Bulegoko ordutegia: 09:30-13:30 / 16:30-19:30
Tel. 943 331 896 / 688 826 539 / euskaltegi@hernani.eus

20/21 ikasturtea

Maskarilla, gel hidroalkoholikoa eta temperatura kontrolak «normaltasun berria» bilakatu dira eskolan

Uda amaierarekin batera ikasturte berria hasi da; egunerokotasuna, ordea, ezberdina izango da ikasle, irakasle zein eskoletako langileentzat. Errutinak aldatu egin dira eta bete beharreko prebentzio-neurri ugari ezarri dira zentroetan.

URUMEA ESKOLARA BUELTA

Astehenean hasi zuten Urumea Bailarako eskolek ikasturte berria. Umeen aurpegietan urduritasuna eta zirrara ziren protagonistak; izan ere, martxotik beraien ikasgelak eta gelakide asko ez zituzten ikusi, oraindik. Hala ere, itzulera ez da guztiz erraza izan. Edo behintzat, ikasle, irakasle eta eskolako gainerako langileak ez dira ohiko moduan bueltatu eskolara. Maskarillen atzean ezkutatu dira ikasleen arteko irrifarrak, eta aurtun ez da besarkadarik egon irakasle eta ikasleen artean. Baina maskarilla jantzita bazuten ere, bailarako ikasleen begiraden atzean ikasturtea hasteko emozioa agerian geratu da.

Hernani, Astigarraga, Goizuta eta Erefiotzuko eskoletako bakoitzak bere modura antolatu du eskolara itzulera, Hezkuntza Sailak zehaztutako jarraibideen barruan. Zentro bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta (erakuntza, gela bakoitzeko espazioa, ikasle kopurua...), erabaki bat edo beste hartu da.

Aratz ikastetxeak, esaterako, ikasgelan nahikoa leku dutelako eta ikasleen ratioa Sailak ezarri zuen muga betetzen duelako, burbuila gela delakoak sortu ditu. Prebentzio sistema honekin, gela bakoitzeko ikasleak beraien gelakideekin egongo dira eta ikastetxeko ikasleen arteko harremana minimizatzea lortuko da. Neurri horren helburua da talde bereko haurren eta beste bizikidetzat talde batzuen arteko interakzioa saihestea. «Burbuila» getan antolatzeak kontaktu kopurua murriztuko du eta koronabirusagatik kasu positiboren bat baieztatuz gero, haur

eta ikasleen artean miaketa-lana erraztuko da.

Ohitu beharreko errutinak

Koronabirus gaixotasunaren hedapena geldiarazteko ezinbestekoak dira prebentzio-neurriak hartzea. Hori bermatzeko, bete beharreko neurri batzuk zehaztu zituen Hezkuntza Sailak. Horregatik, eskoletan hartu diren neurri guztiekin, maskarilla, gel hidroalkoholikoa eta temperatura kontrolak «normaltasun berria» bilakatu dira hezkuntza zentroetan. Eskolara sartzeko eta bertatik ateratzeko horiek dira egunerokotasunean ikasle zein irakasleek bete behar dituzten jarraibideak.

Gela barruan ere, bete beharreko neurriak zehaztu dira. Eta jangela eta jolastokia bezalako espazio komunean, jende piletak saihesteko neurriak ezarri dira eskoletan. Aurtengo egoera honetan umeek ilara egin beharko dute eskolara sartzeko. Ikasgela bakoitza eskolako gune zehatz batean bilduko da eta ondoren, irakaslearekin, bakoitza bere gelara joango da. Modu ordenatuan egingo da guztia, umeen arteko kontaktua ahalik eta murriztena izateko eta kasu positiboak saihesteko.

Jangelan ere txandak egingo dira. Ume guztiek ezingo dute batera bazkaldu eta adin-tarte bakoitzak bazkalordu zehatza izango du.

Eta bailarako eskolek beraien neurriak zehaztu badituzte ere, eskolako ikasle edo langileren batek sintomak izanez gero, kontuan izateko protokolo bat sortu du Hezkuntza Sailak. Hartutako neurrien artean dauka COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten



Haurrak, ikastolatik ateratzeko ere, txandak egiten dituzte.



Umeak eskolan irakaslearen azalpenak entzuten, segurtasun neurriak betetzen dituztela.

ikasle, irakasle edo langileak ez direla eskolara joango. Eta noski, positiboa denak ere ezingo du eskolara joan. Gainera, etxean norbaitek COVID-19aren diagnostikoa badu, eskolak honen

berri izan beharko du.

Eta Sailak sortutako protokoloaren barruan dago ere, eskola bakoitzak higie eta aireztapen neurri egokiak betetzen dituen «isolamendu-gela» bat izatea.

Bertara joan beharko du gaitza-ren sintomak dituen pertsonak. «Eskolako gela normal bat da, baina arduradun bat egongo da bertan eta zehaztutako protokoloa jarraituko du berak». **K**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaiz, O. Egaña, I. Goñi, L. Goñi, A. Isasa,
B. Los Arcos, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, I. Santa Kruz eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM

2015 BIKAIN



«Iaz bezala gaude hemen, baina maskarillekin eta gel hidroalkoholikoarekin... ez dakigu zer gertatuko den»



Ikasleak komunean eskuak garbitzeko ilaran, segurtasun distantziak mantenduz.

Protokoloa eta kontingentzia-plana zehaztuta dituzte Langilen, baina «gauzak egunero aldatzen dira eta ziurgabetasuna ere badugu».

HERNANI LANGILE IKASTOLA

Hasiera «arraroa» izan da Langilen. «Irakasle, ikasle, zein eskolako langileak pixkanaka ari gara egoera honetara egokitzten, eta ez dakigu zer gertatuko den». Diote, Hezkuntza Sailak protokoloa bidali ziela eta zenbait maskarilla eta gel hidroalkoholiko ere, «baina ez dugu beste ezer», esan dute.

Bailarako gainontzeko eskolen moduan, Langilen ere esfortzu haundia egin dute protokoloa eta kontingentzia-plana prestatzeko. «Ikasle asko gara hemen eta 23-25eko

ratioak ditugu. Orain arte ikasleak ziren gelatik gelara mugitzen zirenak, baina orain irakasleak dira ikasleengana joaten direnak. Hori izan da aurtengo ikasturteko aldaketa nagusia».

Eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera gelditu dira, baina bestelako ekintzak egiteko asmoa dute Langilen. «Ikastolan bakoitzak bere taldea du orain, eta ikasleak ezin direnez nahastu, aterpetxeetara gaua pasatzera ezin dugu joan. Hala ere, eguneko irteerak egitea pentsatzen ari gara», azaldu dute.



Irakaslea ikasleekin eskolatik irteten, txandaka.

«Kontzientziazatuta gaude egoera berri honekin»

Hezkuntza Sailak sortutako protokoloa kontuan izanda, Aratzek bere propioa egin du egoera kontrolpean izateko.

HERNANI ARATZ IKASTETXEA

Eskolako lehenengo egunak «arra-roak» ari dira izaten Aratzen. Diote, «hasiera ezberdina» eman diotela ikasturteari, hartu behar izan dituzten neurriek horrela behartu dutelako. Hala ere, «ikasleak gogotsu etorri dira eta neurriak modu egokian betetzen ari dira», azaldu dute. «Informatikari garrantzia ematen ari gara; konfinatzen bagaituzte ezinbestekoa iruditzen zaigu ikasleek informatika nozioak izatea etxetik eskolak ondo jarraitu ahal izateko», adierazi dute.

«Burbuila gelak» sortu dituzte Aratzen, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzarako. «Irakasle bakoitza bere ikasleekin egoten da une-oro, eta ikasle taldeak ez dira beraien artean

nahasten. Eta jolastokian ere bakoitzak bere espazioa du».

Sailak protokoloa azaldu bazien ere, Aratz ikastetxeak bere propioa sortu du. Diote Sailak emandako kontingentzia-plana «oso berandu» heldu dela. Gainera, inolako laguntzarik jaso ez dutela esan dute: «Hezkuntza Sailak 1.000 irakasle berrien kontratazioaren aukera jarri zuen mahai gainean, baina guk ez dugu horren berri izan».

Egoera hau dela eta zenbait ikasle ez dira eskolara joan lehenengo egunetan. «Protokoloa azaltzeko bilera egin bagenuen ere, familiak beldur dira eta zenbait ume ez dira eskolara etorri. Hala ere, gogorarazi diegu eskolatzea nahitaezkoa dela eta beraz, egoera ulertu arren, eskolara etortzera animatu diegu».



Umeak eskolako atean, lurrean margotutako marren barruan, ikasgelarako sartzeko zain.

«Familiek erantzun oso ona izan dute egoearen aurrean»

Urumeako zuzendaritza taldea ekainean hasi zen lanean ikasturte berri honi aurre egiteko protokoloa prestatzen.

HERNANI URUMEA

Bailarako gainontzeko eskolen moduan, Urumean ere buru-belarri aritu dira lanean egoera honi aurre egiteko kontingentzia-plana eta protokoloa prestatzen. Ekainean hasi ziren horretan irakasle eta zuzendaritzako kideak, eta abuztuan ere zehaztapenak egiten jarraitu dute.

Ezjakintasunaren aurrean familiek kezka azaldu zuten hasieran, baina protokoloaren berri izan zutenean lasaitu egin ziren. «Ikasle eta gurasoek oso erantzun ona izan dute egoeraren aurrean; hasieratik errespetuz jokatu dute eta ezarritako arauak bete dituzte», azaldu dute.

Urumean ere «burbuila-taldeak» egin dituzte, eta modu honetan ikasle

taldeak ez nahastea errazagoa da. «Irakasle espezialistak bakarrik mugitzen dira gela batetik bestera».

Hala ere, Hezkuntza Sailaren lana «desastre hutsa» dela esan dute hauek ere. «Eskola guztiak esfortzu haundia ari gara egiten beharrezko materiala gure kabuz erosi eta protokoloa ahalik eta zehatzena izateko. Sailak materiala bidali digu, baina oso gutxi, eta beraiek sortutako protokoloaren berri oso berandu izan genuen». Irakasleek ikasturte berri hau hasteko formakuntza ere Urumeako zuzendaritza taldeak emandako da: «goitik ez zaigu erreferentziako pertsonarik etorri».

«Ikasle taldeak nahastea ezinezkoa da» eta horregatik, momentuz eskolaz kanpoko jarduerak eta goizetako zaintzak bertan behera gelditu dira eskolan.

«Zortez espazio aldetik arazorik ez dugu eta horregatik, nahasketak saihesteko talde egonkorrak sortu ditugu»

Normaltasun-berri honetara «ohitzen saiatzen» ari direla diote Goizuetako Xalto eskolakoek.

GOIZUETA XALTO ESKOLA

Xalto eskolako ikasle guztiak joan dira eskolara lehenengo egunetik. «Etxekoan aldetik kezka haundia sumatu dugu, baina zehaztutako kontingentzia-planaren berri izan dute guztiek eta lasaitasuna sumatu dugu; mezuak, e-mailak eta telefono deien kopurua gutxitu egin da azken egunetan».

Talde bakoitzak eskolara sartzeko sarbide propioa du Xalto eskolan. «Hiru bloke ezberdin ditugu, eta bakoitzean bi talde daude. Lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak sarrera nagusitik sartzen

dira eta bakarrik daude goiko pisuan. Bosgarren, seigarren eta DBHko ikasleek beste ate bat dute eta orduan, sarrerak eta irteerak ez dute kointziditzen», azaldu dute.

Errekreoan ere «burbuila gela» bakoitzak bere eremua du. «Frontoia, futbol zelaia eta eskolako gainerako eremuak zatitu eta talde egonkor bakoitzak bere eremua du orain».

«Ongi ari gara funtzionatzen. Hala ere, zenbait eskaera egin ditugu eta orain arte ez dugu laguntzarik jaso. Plantilla zabaltzeko eskatu dugu esaterako, baina ikuskariaren erantzunaren zain gaude».



Haurrak Andres Nabarte Xalto eskola kanpoan, gelara sartzeko ilaretan, segurtasun distantzia mantenduz.



Astigarragako Herri Eskola.

«Martxan gaude eta ikusiko dugu ea zer gertatuko den»

Egoerak nola «eboluzionatzen» duen pixkanaka ikusiko dute astigarragakoek, baina gogoz ekin diote ikasturteari.

ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA

Urduritasuna eta ezjakintasuna dira ikasturte berri honen hasiera definitzen duten hitzak. Irakasleak, ikasleak eta eskolako langileak aurrerantzean gertatuko denearen esperoan daude. Hala ere, guztiek zuten eskolara bueltatzeko gogo. Martxotik etxetik aritu dira lanean eta neketsua eta «arraroa» izan da eskolan ez egotea. Astigarragako Herri Eskolakoek uztailaren zehaztu zuten kontingentzia-plana: «uztailaren bukaerarako prest genuen guztia».

Urumea Bailarako beste zenbait eskolen moduan, Astigarragan ere «burbuila» taldeak egin dituzte. Izan ere, nahikoa leku dute eskolan eta egoerak baimendu egin die modu honetan antolatzea. Eta gainerakoan, «maska-

rilla, segurtasun distantziak eta gel hidroalkolikoa erabiltzen ditugu egunerokotasunean», gehitu dute.

Ia ikasle guztia joan da eskolara lehenengo egunetik. «662 ikasletik 5 bat edo ez dira etorri, baina jakinaren gainean gaude», azaldu dute. Familien aldetik kezka nabaritu badute ere, «prestatutako protokoloaren berri eman genien eta ikasleren bat etorri ez den arren, orain lasaiago daude». Eta irakasle guztia eta eskolako langileen plantillari dagokionez ez da kontratazio berrikir egin: «berdin jarraitu dugu eta ez da aldaketarik egin».

Eskolaz kanpoko jarduerak bertan behera gelditu dira Astigarragan, baina horiei ekiteko asmoa dute: «ikusiko dugu zer egin egoera aurrera doan heinean».



Mendi buelta egin zuten atzo, Txirrita eskolakoek, neurri prebentiboak kontutan hartuta.

«Urduri etorri gara ikasturte berrira, ezjakintasunarekin»

«Gogo haundiz» itzuli dira Txirrita Herri Eskolakoak, hala ere, ezin ukatu «egoera honek sortutako urduritasuna».

EREÑOTZU TXIRRITA HERRI IKASTETXEA

Ereñotzuko Txirrita Herri ikastetxean, «pozik, ilusioz, indartsu eta gogo haundiz» hasi omen dute ikasturtea, hala ere, irakasle guztiek dio, «urduri» hasi direla, «ikasturte berezia izango baita, eta ezjakintasun askorekin hartu dugu». Hamaika zalantza etorri zaizkie burura, hala nola, «egoera berrira nola moldatuko ote gara? Haurrak nola ote datoz? Nola daude familiak? Nola pasa ote dute uda?».

Ereñotzun ere, protokolo bat jarraitu dute, izan ere, «neurriak, eskolako kontingentzi planean jaso ditugu, departamentutik eskatu baitziguten». Hori horrela, Ereñotzuko Txirrita Herri Ikastetxean hainbat neurri ezarri dira. Haien artean, 6 urtetik gorakoek mu-

sukoa eraman behar dute, ikastetxera sartzeko eta ateratzeko taldeak egingo dira, tenperatura hartuko da, eskuen garbitasuna «maiz», distantziak eta eskolaren garbitasuna haundituko da.

Txirritan, 3 urtetik gorako ikasle guztiak astelehenean hasi zuten ikasturtea, aldiz 2 urtekoak egokitzapena dela eta, asteazkenean hasi ziren, eta «Haur Hezkuntzan badira familia pare bat ez hastea erabaki dutenak». Familietan ere «emozio asko» nabaritu dute Txirritako irakasleek, eta diote «pena» ere somatu dutela, «beraien haurrak ahoa tapaturik ikusi dituztenean».

Egoera zaila izan arren, Txirritako irakasle guztia plantila egonkorra da aurtengoa, «eta horrek indar berezi bat ematen dio eskolari, lasaitasuna alegia».



Hernaniko Lanbide Heziketako irakaslekoa, prestatutako protokoloa aztertzen.

«Arreta berezia jarriko dugu online prestakuntza ematen»

Aurretik prestatu zuten protokoloa zentroan: «Ekainean argi ikusi genuen prest egon behar dugula etor litekeenerako».

HERNANI LANBIDE HEZIKETA

Hernaniko Lanbide Heziketan ikasleek oraindik ez dute hasi ikasturtea. Irakasleek, ordea, denbora daramakite egoera honi aurre egiteko protokoloa eta kontingentzia-plana prestatzen. «Eskolak hastean ikasleei prebentzio neurri guztien berri emango diegu eta bilera egingo dugu Oinarritzko Lanbide Heziketako gurasoei», azaldu dute.

Hiru txanda antolatu dira eskolako ikasleak ikasturtearekin hasteko. Goi mailako 2garren mailakoak astelehenean hasiko dira, eta lehenengo mailakoak, asteazkenean. 2garren mailako Erdi mailako ikasleak hilaren 21ean hasiko dira, eta 23an lehenengokoak. Eta azkenik, Oinarritzko Lanbide Heziketakoak irailak 28an hasiko dute ikasturtea

2garren mailakoak eta 30ean lehenengokoak.

Pilaketak saihesteko hamaika prebentzio neurri hartu dituzte. «Talde batzuk 08:00etan sartuko dira, eta beste batzuk 08:10etan; irten ere bi txandatan irtengo dira. Gela eta tailerrean, sartu-irten bakoitzean ikasle bakoitzak erabilitako mahaia, ordenagailua eta tailerreko tresnak garbituko ditu; horretarako gela guztiak egongo dira produktu egokiez horniturik. Bestalde, gelak 20 minuturo, eta klasea hastean eta amaitzean aireztatuko ditugu».

Aurten «arreta berezia» jarriko dute online prestakuntzan; moodle ikastaroak egin dituzte eta online erabiltzeko materiala prestatu dute. Izan ere, diote, «talde bat konfinatu behar bada, etxetik lan egiten jarraitzea nahi dugu».



Datorren astean hasiko dute ikasturtea, BHI Institutuko gazteek.

«Oinarritzko neurriak aplikatu ditugu, egoerak eskatutakoak»

Institutuan pixkanara ari dira martxa hartzen, eta datorren astean hasiko dute ikasturtea ikasle guztiek.

HERNANI BHI INSTITUTUA

Institutuko ikasle guztiek ez dituzte eskolak hasi oraindik. «Erdizka hasi dugu ikasturtea, eta ohitzen ari gara oraindik». Izan ere, DBHko lehenengo eta bigarren mailakoak astelehenean hasi ziren eskolak hartzen, baina hirugarren eta laugarren mailakoak eta batxilergokoak, datorren astean hasiko dute aurtengo ikasturtea.

Lehenengo egunak dira eta hezkuntza zentroetan zer gertatuko den inork ez daki. «Desikasi edo ikasi egin behar dugu», onartu dute institutuan. Bertan ez dira «burbuila» taldeak sortu, «ezinezkoa delako». Ikasle asko daude DBHko lau mailetan eta batxilergo osoan. «Hala ere, gauzak ahalik eta hobekien egiten ahalegintzen gara.

Burbuila bat ezin da sortu hemen, baina gelaka egoten saiatzen gara, talde egonkorretan».

Gainera, institutuko ikasleak «ez dira umeak», azaldu dute bertakoek. «Gelan edo jolas-orduan elkartzen ez badira, ziurrenik talde ezberdinetako ikasleak elkarrekin etorriko dira institutura edo gero arratsaldea elkarrekin pasatzeko geratuko dira». Baina azaldu dute Hezkuntza Sailak eta gainerako erakundeek emandako protokoloak kontuan izanik, institutuan ere beraiekin kontingentzia-plana sortu dutela. «Ahalik eta zehatzen egiten ahalegindu gara».

Eskolako irteerak bertan behera gelditu diren arren, «aukera dugu egun pasak egin eta aire freskoa arnastera aterako gara, ziur».



GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII - CIPF INNOVACIÓN SOCIAL
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HONKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hernaniko Gizarte Berrikuntzako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

**SARTU IKASTERA
ATERA LAN MUNDURA!**

Hernaniko Gizarte Berrikuntzako LHII ikastetxetik,
ONGI ETORRI ikasle, irakasle, familia, eta hezkuntza komunitateko partaide guztiok

Karmelo Labaka, 7 Hernani **943 55 19 58**



**2020-2021
ikasturte berria!**

ONGI ETORRI!
IKASLE ETA
FAMILIA GUZTIOI

Santio Zeharra 4, Astigarraga

Telf: 943 55 12 62



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

www.hernanibhi.eus

AGUSTIN ITURRIAGA (ZIG gela, 4. DBH eta Batx)

Tel: 943 899 510 institutua@hernanibhi.eus

SANTA BARBARA (G. Egonkorra, 1. eta 2. DBH)

Tel: 943 899 511 santabarbara@hernanibhi.eus

HARROBI (3. DBH)

Tel: 943 899 512 institutua@hernanibhi.eus

Ongi etorri Hernani BHIko ikaskomunitatea osatzen dugun ikasle eta familia guztiori!

**2020-2021
IKASTURTEA**

'Bizi dantza' emanaldia gaur, Pirritx, Porrotx eta Marimototsek

Gaur, Euskal Herrian hain maitatuak diren Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek, bi emanaldi eskainiko dituzte, lehena 16:30etan, eta bigarrena 19:00etan.

HERNANI PAILAZOAK

Aurtengo egoera «ez ohikoa» bada ere, Hernaniko Musika Eskolak, gaurko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia antolatu du. Gainera, bi saio eskainiko dira, lehena arratsaldeko 16:30etan, eta bigarrena berri, 19:00etan, biak Atsegindegian izanik. Musika Eskolak jakinarazi du «250 lagunera mugatu behar izan dugu aforoa, eta aurreneko saiorako sarrerak azkar saldu zirenez, bigarren bat antolatzea erabaki genuen».

Urte berezi bezain arraroa izan da aurtengoa, eta antolatzailerak adierazi dute, «berezi ki garrantzitsuak ditugu, une



Sudur gorriekin, mundu grisa aldatzera etorriko dira gaur, hiru pailazoak.

honetan, irribarreak, abestiak, dantzak... Ikasturtea ezin hobeto hasteko modua da pailazoen bisita, bihotza pozten baitigute».

Sudur gorriekin, mundu grisa aldatzera

Gaurkoan, etxeko txikien aurpegiak alaitzeko asmoz etorri dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots, izan ere, «saiatu gara asmatzen,

gure sudur gorrietatik nola aldatu dezakegun mundu gris hau. Biodibertsitatea erdira jaitsi zaigu, eta gizakiak gora goaz. Guztiaz jabetzen ari gara, baina babesa gutxitzen ari zaigu. Mundua arazoz beteta dauka, eta hori aldatu behar dugu». Hori horrela, gaur Hernanin maitasuna banatuko dute hiru pailazoek. **K**

Bigarren eskuko azokak hartuko du, Urbieta kalea, gaurkoan ere

Makina postu jarriko dira gaur goizetik Urbieta kalean. Eta beharrezko neurri prebentiboak hartuko dira.

HERNANI BIGARREN ESKUKO EZOKA

Urbieta kalea, postuz beteko da gaur, goizean goizetik. Izan ere, bigarren eskuko azoka antolatu da, eta mota askotako tresna, material zein arropa izango dira eskuragai. **K**



Gaur goizetik egongo da aukera, bigarren eskuko azokara bertaratzeko.

Irteera gaur, anfibio eta narrastiak ezagutzeko

Ikasturteari hasiera emateko, Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirola Sailak, irteera antolatu du, gaurko.

HERNANI IRTEERA

Gaur, Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirola Sailaren eskutik antolatutako irteera egingo da, herriko anfibio eta narrastiak ezagutzeko. Aranzadi Zientzia Elkarteko Iñaki

Sanz-Azkue eta Egoitz Alkorta hernaniarren eskutik.

Goizeko 10:00etan hasiko dute irteera, Ekogunean. Hala ere, asmoa da bertara elkarrekin joatea, oinez. Eta horretarako, 09:00etan jarri dute hitzordua, kiroldegiko beheko sarreran, hain zuzen.

Hernaniko Udaleko Jarduera Fisikoa eta Kirola Sailak jakinarazi du, «herriar guztientzako moduko irteera» dela, baina bereziki «familien eta gaztetxoentzako neurria antolatuako irteera izango dela gaurkoa». **K**

'Ettxerat'en loteak saltzeko postua, gaur

HERNANI POSTUA

Gaur arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara bitartean, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek, *Ettxeraten* loteak saltzeko postua jarriko dute. Postua Kale Nagusia eta Nafar kaleko «ixkinean» jarriko da. «Herriarrak animatu nahi ditugu lote hauek erostera».

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

†

LUIS MARCO OTXOTORENA
Atzo hil zen Hernanin, 93 urte zituela
- Goian bego -

Emaztea: Sebastiana Urdanpilleta; seme-alabak: Paulino (†), Mila eta Juan Mari Lopetegui, Kontxi eta Jose Luis Agirreurreta; bilobak: Naiara eta Iñaki Santamaria; birloba: Miren; anai-arrebak: Dionisia (†) eta Joxe Oyarbide (†); Paulino (†), Joxe Kruz (†), Fermin (†) eta Josefa Lizarralde (†), Bernardina (†) eta Antonio Santa Kruz, Manuel (†), Juanito (†), Jabier eta Maria Luisa Juanikorena (†); ezkon anai-arrebak: Joxe Mari (†) eta Manoli Ormaetxea (†), Kontxi (†) eta Santiago Gorrotxategi (†), Miguel (†) eta Juani Agirre (†); ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta gonbidatzen zaituztegu **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko irailaren 12an

OHARRA: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da arratsaldeko 18:00ak arte.

XANTI JAUREGI ARTOLA
(Langile ohia)
Hernaniko Udala

Hernanin, 2020ko irailaren 12an



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...

Zentrala Latsunbe 7, Hernani



HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

«Egindako ikerketarekin Hernanin euskararen alde egiteko gogoia eta nahia dagoela baieztatu dugu»

85 entitate jada izena emanda daude Euskaraldia-Euskara ari du ekimenean. Entitateen izen-ematea irailaren 27an amaituko da, eta irailaren 24an banakakoena abiatuko da. «Aurtengo parte-hartzaileen perfila anitza da, Hernani bera bezala».

HERNANI EUSKARALDIA EUSKARA ARI DU

Ikasturtearen hasierarekin Euskaraldia-Euskara ari du ekimenean ere martxan da Hernanin. Atzo izan zen prentsurrekoa Biterin, aurtengo ariketa sozia-laren funtsa zein den azaltzeko. Bertan izan ziren parte hartuko duten zenbait talde eta entitateen ordezkariak, Udaleko kideak eta herriko alderdi politikoen ordezkariak ere. Leire Otxotorenak gidatu zuen saioa, bera baita Hernaniko Euskaraldia-Euskara ari duren arduradun nagusia.

Xabier Lertxundik hitza hartu zuen prentsurrekoan, eta azpimarratu zuen garrantzitsua dela «ekimena ez geratzea argazki soil batean edo bi astetako erronkan. Alderantziz, urte osoan zehar eta aurrerantzean ere luzatu behar dugu hartutako konpromisoa; lan haundia dago guzti honen atzean».

Era guztietako taldeek eman dute izena ariketa sozialean. Hala ere, Otxotorenaren esanetan, «batez ere esparru sozioekonomikokoak nabarmentzen dira. Batez ere enpresak, denda,

tabernak edota zerbitzuak dira». Izan ere, COVID-19ak eragindako alarma egoerak hasierako «estrategia aldatzea» ekarri zuen. Eta horregatik, aurtengo edizioan lan-munduarekin lotutako talde gehiagorekin bildu da Euskara ari du lan taldea, 2018garren urtean egindako dinamikan baino.

«Oso balorazio positiboa da»

Orain arteko balorazioa oso positiboa dela adierazi du Otxotorenak. «Ekimena aurkeztu zaien talde gehien-gehienek oso jarrera ona izan dute Herri Batzordearekin, eta hori benetan estimatzen da egungo egoera kontuan izanda». Bestalde, egungo egoera dela eta egin behar izan zuten estrategia-aldaketa horri esker, orain arte landu gabeko taldeen bildu dira, eta «ekimenaren berri ez zuen jendeak ekimena zuzenean ezagutu du».

Eta ekimeneko arduradunak atzoko prentsurrekoan adierazi zuen moduan, emandako estrategia aldatetari esker, «Euskara ari duren eragin-esparrua zabaltzeko aukerak ugaritu dira». Horregatik, balorazioa positiboa da.



Ekimenean parte hartuko duten zenbait taldeen eta alderdi politikoen ordezkariak, Udaleko kideak eta Euskaraldiaren arduraduna.

Eta Otxotorenak gehitu du, atzoko aurkezpenera etorri ez ziren taldeak jakinarazi dutela, ezin izan dutela bertaratu, «ordutegia dela medio».

Programazio oparoa antolatu dute udazkenerako

Euskerarekin eta hizkuntzarekin lotura duten saioak prestatu dituzte datozen hilabeteotarako. Irailaren 23an, arratsaldeko 19:00etan, Kike Amonarriz izango da Biterin *Euskararen bidegurutzetik* liburua aurkeztera. Amonarrizek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoari buruzko ezagutzak jendartera-

tu nahi izan ditu liburu horretan, «oso modu dibulгатiboan, edozeinek ulertzeko moduan», azaldu du Otxotorenak.

Hurrengo saioa ere Biterin izango da, irailaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan. Musika eta dantza izango dira nagusi Biterin. Askoa Etxebarrieta *La Pulga* dantzariak eta Miren Amuriza bertsolariak *Gorria* ikuskizuna eskainiko dute, bertsoa eta dantza flamenkoa uztartzen dituen ikuskizun esperimentalak. Sarrerak salgai daude Dobera Euskara Elkarteak; 8 eurotan bazkideentzat eta 10 eurotan gainerakoentzat.

Urrian, berriz, Joxerra Gartzia eta Gemma Sangines etorriko dira, Euskaraldian parte hartuko dutenei ariketa «arrakastaz» egin ahal izateko baliabideak eskaintzera. Joxerra Gartzia 4 saioko ikastaroa emango du urriaren 15ean hasita, *Euskara zorrotz, hizkera bizi* izenekoa. Ikastaroaren helburua euskara zorrotzu eta biziagotzea izango da. Urriaren 23an, Gemma Sangines, TELP ikastaroen sortzaileetako batek, hizkuntza-assertibitate lantzeko tailerra emango du eta «assertibitatearen bidez hizkuntza-ohiturak aldatzeko» baliabideak eskainiko ditu. **K**

SANTA BARBARA

22 etxebizitzako hurrengo sustapena,
2 eta 3 logelako etxebizitzak

Sustapeneko interesdunen zerrendan
izena emateko epea zabalik

HERNANIARREK
LEHENTASUNA IZANGO DUTE

125

Informazio guztia: **sukia** | 943 31 68 68
Zure etxean zaude. Estás en tu casa. www.sukia.com

«Gure tranpolina Leitza izan zen, baina, planteatu, Ergobian egin zen»

Urte berezia da aurtengoa Incansables txarangarentzat, eta ez, ditxosozko Koronabirusagatik. Sortu zela 50 urte bete dira aurtan, eta Joakin Ortega Villar, *Canario* hernaniarra, hasiera hartatik bertan jarraitzen duen musikari bakarrak, erretiroa hartzeko asmoa du. Txarangaren 50 urteetako ibilbidea bilduko duen diskoa ateratzekoa ere bada, liburuarekin batean.

URUMEA INCANSABLES TXARANGA

Herriz herri, Euskal Herri osoan eta kanpoan, festetako soinu banda nagusia da oraindik ere Incansables txaranga. 1970eko udan elkartu ziren Ergobiako festetan jotzeko Felipe Sagarna *Zapa* hernaniarra (kaxa), Jesus Mari Zalakain *Pipas* villabonatarra (bonbardino), Jose Francisco Esnaola *Paotxa* tolosarra (tronboia), Txomin Castro *Sietemesino* villabonatarra (tronpeta) eta Joakin Ortega Villar, *Canario* (saxofoia).

Canario da, hain zuzen, hasiera hartatik martxan jarraitzen duen bakarra. Baina lehendik ere, amaren sabelean zegoenetik ia, musikari lotuta zegoen. Aurtan erretiroa hartzeko asmoa azaldu du, baina belarriak erne, eta begitartea zimur, sumatzen denari adi egoten da beti.

Ergobiatik, Leitza eta Goizuetara

Hernanin Txatarra txaranga sortu zen 64an, eta bertan hasi zen *Canario*, 12 urterekin. *Pipas* eta Esnaolak ere bertan jotzen zuten, eta *Zapatero* ere koadrilakoa zen. *Sietemesino* Tolosako Kabi Alai txarangaren, Inauterietako koadrilan aritzen zen villabonatar eta tolosarrarekin, eta bestalde, Hernaniko Bandara etorri zen.

«San Joanetan elkartzen ginen. Zezenak Plazan izaten ziren, eta bi txaranga aritzen ginen Elizako atariko bi arkuetan; Txatarra eta Beti Lagun. Badago argazki bat Onddi tabernan, 64ko ekainaren 25ekoa izango da. Horrela hasi zen gure historia. Ergobian elkar ezagutzen genuen laurok elkartu ginen, eta danborra falta genuenez, *Zapaterori* deitu genion. Garai hartan, txarangetarako, han eta hemengoak elkartzen ginen».

Ergobian jotzen bi-hiru egun egindakoan, baten batek esan

omen zien: «nahiko txukuna da, entzuten dena. Zergatik ez zarete urtero berdinak etortzen?». *Zergatik ez?* Pentsatu zuten. Eta hala, 71n, han-hemenka jotzen hasi ziren; Leitza, Goizuetan eta Ergobian, besteak beste. «Beti esaten dugu gure tranpolina Leitza izan zela; aurreneko urtean Andoainen jo genuen egun batez, Villabonan beste batez... Baina Leitza bost egun izan ziren». Eta a zer bost egun! «Planteatu, hala ere, Ergobian egin zen», argitzen du. «Aurrenekoz txarangako bostok jotzera Leitza joan ginen, 1971n. Bost egun egin genituen jotzen, eta ezin genuen ikusten genuena sinistu; hango giroa eta jendearen gogo! Han azaldu ziren denak blusa beltz eta galtza txuriekin, atzetik denbora guztian, hona eta hara, tabernaz taberna. Festetako laugarren egunaren bueltan, Larrea tabernan, bikote bat begira genuen, eta halako batean emakumeak galdetu zigun ea zein izen zuen txarangak. Ez genuen izenik. Eta, orduan, bistako arrazoiak medio, emakumeak aipatu zigun Los Incansables izan gintezkeela. Hurrengo urterako, festetako programari begira, izen bat eskatu ziguten, eta Leitza emakume hark esandakoa gogoratu genuen. Harropuzkeria kutsua izan zezakeen, baina horrela geratu zen. Nork esango zigun txarangak beste bi edo hiru urte egingo ote zituen? Eta, azkenean, begira! 50 urte!».

Bederatziko txaranga

Pixkanaka, handitu egin zen txaranga. «Bostok aurreneko hiru denboraldiak egin genituen: 71, 72 eta 73 urteak. Beti, herri bakoitzean bertako bonbo eta txapak lagun. Kotxean izaten genituen, eta beti topatzen genuen haiekin moldatzen zen norbait. 1974an beste tronpeta bat gehitu genuen: Imanol Mujika, villabonatarra. Mexikarrak



Incansables txaranga 1971n, Basakabin; ezkerretik bigarrena, 'Canario', eta laugarrena, 'Zapa'.

«Ekainaren 27an, bandera jaitsieraren ondoren egiten dugun errondan urtero Hernaniko kaleetan ikusten dugun giroa deskribaezina da!»

jotzeko ondo zetozen bi tronpeta. Lau denboraldi egin zituen gurekin. Baina, gero, erremon-tean ibili zen nire koinatuarekin (Joxe Mari Barrenetxea) Galarretan, eta utzi egin behar izan gintuen, ona baitzen».

Urte hartan kide gehiago ere gehitu ziren. «Bonbo eta txapak txarangaren sartzea pentsatzen hasi ginen, eta 74an bigarren saxofoi baten beharra ere bage-nuen». Izan ere, Canariok berbena taldeetan ere jotzen zuen 69az geroztik, tartean, Axintxio Barrenetxea koinatuarekin, eta askotan emanaldiek bat egiten zuten. Jose Mari Zaballos eta Manuel Roperok bete zuten paper hori. «Gu izan ginen bederatziki kideko txaranga formazioa sortu genuenak. 76az geroztik beti izan gara bederatziki. Gaur egun, askok, baita guk ere, hamarrekoa ere erabiltzen dugu, helikoia gehituta. Diskoetarako hamarrekoa erabiltzen dugu. Hernanin jotzeko ere, hamarrekoa, herri indartsua delako; berdin, Tolosan eta Iruñean. Beste-la, normalean, bederatzikoa».

Indartu eta ezagun egiten hasi ziren. «Pixkanaka indarra hartu genuen. Jendeak jakin egiten zuen non joko genuen eta hara agertzen zen. Batzuetan, tabernetan sartu eta mahaia-tera igota jo behar izaten genuen, jendetzagatik. Behin bonbardinoak esan zion tronboiari: 'azkenean sinestu egingo dugu!' Beatles taldea bezala ginen, baina txarangaren artean».

Hotsa aldatu zenekoa

Aurreneko hamarkadan ospea irabazi zuen Incansables txarangak. Adibidez, 76an hasi ziren Euskal Herriko Itzulian jotzen, eta 25 urtez aritu ziren gero. Baina, «81era arte, entseatu, batere ez! Urteak generam-tzan jotzen, eta entseatzeko hasi behar genuela pentsatzen hasi ginen, baina, Pipasek, ezetz. Azkenean, beste kontu batzuen-gatik, banandu egin ginen, eta ordutik aurrera ni hasi nintzen erreperitorioa, konponketak idazten. Lehenago egiten nuen berbena taldeetan ere. Eta horrela, txarangaren soinua aldatzen hasi zen, besteekin alde-ratuta. Izan ere, txarangek ez zuten entseatzeko, eta ez zituzten musikari berak mantentzen. Gu hasi ginen horrela. Entseatu-ta eta erreperitorio berriarekin atera ginen aurreneko urtea 82a

izan zen».

Txarangaren aurrenekoeta-ko grabazioak ere ordukoak dira. «81eko denboraldi bukaerako banaketa medio, desegin egingo ginela zioen zurrumurrua zabaltzen hasi zen, eta, berehala, aurre egiteko, lapitzarekin idatzi nuen, beti bezala, bururatu zitzaidan musika guztia, eta LP disko bat grabatu genuen. Pare bat urteren buruan, entzuleek ondo hartu zutela ikusita, eta agenda betetzen ari zitzagunez, beste bat grabatu genuen, portadan karikatura dibertigarri batzuk jarrita. Ordukoa da gure txarangaren adierazgarri den *Los Incansables* kalejira».

Udaletxeak Tilosetako kiosko azpiko lokala uzten zien. Gero, Musika Bandaren akademian, udaletxeko goiko pisuan aritu ziren, eta baita Sietemesi-nok Villabonan zeukan koadernaketa tailerrean ere. «Gero gaxotuta hil zen. Baina, 2010ean, 65 urterekin erretiratu zen, eta orduan, Santionen, nire koinatuak etxea daukan horretan entseatzeko hasi ginen. *Gaube-la* berbenakoak ere han biltzen ginen. Fundamentu pixka batekin aritu nahi baduzu, astean behin, behinik behin, entseatu behar duzu».

Eta pixka bat ez; fundamen-tu asko jarri zuten. «Gure erre-peritorioa txarangetako oinarri-zko erreperitorio bilakatu da, txaranga asko gu kopiatzen hasi



Joakin Ortega Villar, 'Canario', aurten erretiratzekoa da, Incansables txarangaren 50garren urteurrenarekin batera.

baitziren. Beste batzuk konponketak egiten zituzten, agian, baina txarangetarako errepertorioa paperean idazten zuen bakarra ni nintzen».

Bederatzikoa eta erreper-torioa txaranga guztietarako oinarri bilakatu ziren bezala, Incansablesek beste marka bat ere utzi du, garai hartatik. «Orduan gehitu zitzaigun Luis Mari Berasategi Tate, txapekin. Garai hartan hemen erabiltzen ez ziren bateria erritmoak ezagu-

tzen zituen; ska, adibidez, eta bururatu zitzaion txapak erabili zitzakeela bateriaren *charleston* edo *charles* efektua lortzeko. Al-daketa handia eragin zuen txarangaren soinuaren, ordura arte perkusio guztiak batera jotzen baitzuen. Gaur egun, txarangen %90ek erabiltzen dugun modua da».

Ospea eta beste aldea

Mende erdiak askorako ematen du, eta txarangen hazi, oinarri

eta eredu bihurtu duten ezaugarri asko pilatu ditu Incansablesek urte hauetan guztietan. Baita bizipen dibertigarri mordoa ere! Txarangaren historia bil-tzen duen liburuan gehiago jaso du Canariok, baina badira aipatu gabe utzi ezin diren batzuk.

Esaterako, hegaldi luze askoa egin duen Paotxaren txantxan-gorriarena. 78an Ergobiako festetan *Baccara* izeneko ahots-bikote baten piezarekin ari zirela, *The devil sent you to Loreda* kan-



1962ko Domun egunean jotzen; Canario, ezkerretik lehenengoa.

tuaren leloan, Paotxak mikro-fonoa hartu eta hor bota omen zuen: *'a que te como el txantxan-gorri'*, bere erremerre ahoskera bereziarekin. «Hain izan zen barregarria, hamarkada bat egin genuela kontuarekin». Eta zabaldu ere egin zen, txantxan-gorri zer zen jakin ez, eta norberaren bertsiora egokituta... Estatu osoko txarangek ere jo izan dute, eta telebistara ere iritsi zen! Etxekoak ere izan ditu go-goan, Canariok. 1982an atera zen aurreneko Beti Egarriak koadrila, Hernanin, eta ordutik, Incansableseko 11 bat musikari joaten dira urtero haiekin 'jotzera'. Jo, Incansableseko kideek jotzen dute, eta Beti Egarriak koadrila-kideek hainbat musika tresna lortzen dituzte, eta jotzeko imin-

tzioak egiten dituzte. «Koadrila honen familia giroa da gehien gustatzen zaiguna». Horrexegatik, 2006an, 25. urteurrenarako koadrilarentzako pieza bat egiteko eskaera egin zioten Canariori. «Ez naiz gauzak enkarguz egiten dituen horietakoa, baina lapit-zari punta atera eta zerbait atera zen. 2014ko *Omenez* diskoan dago kantu ezagun hori: *la lara lara larara, beti beti egarriak...*» «Ekainaren 27an, bandera jaitzieraren ondoren egiten dugun errondan urtero Hernaniko kaleetan ikusten dugun giroa deskribaezina da!».

Dena ez da izan poza eta al-gara, ordea, eta bizipen gogorre-nen artean, agurrak aipatzen ditu. «Badauzkagu dagoeneko zortzi hildako». Zapa galdu zuten

‘Iriki leyua, Angelita kantari ai da ta!’

Txintxo demonio bete zuen Canariok amaren nahia. «Semeren bat musikari izatea nahi zuen». Ikasketa ofizialetarako denbora gutxi izan zuen, 8 urte zituenetik 13 egin arte, baina bilatu zituen bestelako bideak.

HERNANI JOAKIN ORTEGA 'CANARIO'

«Hernanin jaioa naiz, 1951n (1951-11-19). Aita, Juan Ortega, Kanariar Uharteetakoa zen. Ama, Angela Villar, Ibaetako Sagastiburu baserrikoa. Musika-zale porrokatua zen ama, eta ezaguna zen bizilagunen artean, zarzuelak eta beste gauza batzuk oso ondo kantatzen zituelako. Karkabako bizilagunek sarri esaten zuten: *'iriki leyua, Angelita kantari ai da ta!'*.

Semeren bat musikari izatea nahi zuen amak. Zazpi urterekin jaso nituen aurreneko musika klaseak, parrokiako organista Don Jesus Zubimendiren eskutik. Zortzirekin eseri nintzen aurreneko piano baten aurrean. Baina jaso nuen aurreneko eta azkeneko piano klasea izan zen. Momentu hartan bertatik pasa zen Don Jose Antonio Ruiz Bona, herriko musika bandako zuzendaria, eta

esan zuen: *'mutiko hau urtebetean bandarako klarinetea jotzen aritu daiteke'*. Hura entzun, eta pianoari tapa jaitsi nion.

Bederatzi urterekin hasi nintzen bandan, rekintoarekin (klarinete txikiago bat), 1960ko abenduaren 24an, galtza motxetan. 12-13 urtera arte jarraitu nuen ikasten, eta orduan, zuzendariak esan zidan Donostia-ko kontserbatorioan matrikula egingo zidala, oboerako. Zer zen ere ez nekien. Baina sei hilabetera, Tolosako Bandatik deitu zioten, eta hara joan zenean bukatu egin ziren nire ikasketak. Ez dut gehiago ikasi. Belarritik tira dut asko, eta begiratzetik. Bandan jarraitu nuen rekintoarekin, 18 urtera arte. Bandako musika tresnen altuerak eza-gutzean, akordeen inguruan galdezka hasi nintzen, batez ere, piano-joleei. Instrumentu monofonikoa jotzean, aurreneko ahotsa egiten duzu, baina se-

kretua bigarren ahotsean dago, eta txarangetan entzuten dira gaizki egindako duoak! Niri armoniak zaintzea gustatzen zait, eta diskoetan ikusten da. Hortik aurrera, saltsero hutsa naiz... Saxofoia jotzen zuen bati galdetu nion, eta klarinetearen antzekoa zela. Hodi bat, azken batean. Berbena talderako, berri-ronpetak behar zirela-eta, ahokoarekin probak egin eta... aurrera! Soldaduskan, bestalde, Caceresen, Ondarroako batek erakutsi zidan flauta jotzen, eta Arrasateko batek tronboi irris-tailuduna. Horrela, denekin nahasian ibili izan naiz.

Hernaniko Bandan ari ginel, 16-17 urterekin, bururatu zitzaigun berbena talde bat egitea, *Amaya*, tartean, Axintxio Barrenetxea, koinatua zegoela, eta *Tati*, tronpetan. Teklista bat ere bai. Orduan 23-24 urterekin jende asko ezkontzen zen. Hernanin monopolioa zuen talde



Canario, Hernaniko Bandan galtza motxetan jotzen, 1962an.

bat bazegoen, akordeoia, saxoa eta bateriak osatua. Ez zuten kantatzen. Saxoa, gero banda 25 urtez zuzenduko zuena, Manolo Sagarna zen. Epelekon egiten ziren ezkontza gehienak; Fagollagan ere bai, batzuk. Gu, lau gazte, *Un rayo de sol* edo *Ibiliko gera* kantari, 23 urteko baten ezkontzan... Guregana etortzen hasi ziren. Sagarna, urtean 40 bat ezkontza egitera ohituta ze-

goen... Haserrea sortu zen musika bandan, eta kaleratu egin gintuzten. 1960ko abenduaren 24an sartu nintzen, 9 urterekin, eta 70eko abuztuaren atera nintzen. Amak galdetzen zidan: *'zer egingo duzu orain?'*. Dena den, bandan ez da dirua egiten; herriko bandan jotzen duenak maitasunagatik egiten du. Baina, begira, astebetera Ergobia-koa atera zen».



Txatarra txarangarekin Hernanin, 1964ko ekainaren 25ean. Biyok argazkiak.



Beti Lagun txarangarekin Hernanin, 1966ko ekainaren 25ean. Canario, aurrenekoa.



Arconada, Zamora, Idigoras, Lopez Ufarte... 81ean Liga irabazi zuten Realeko jokalariekin, Beti Lagun txarangarekin.

aurrena. «1980ko apirilaren 19an estatu terrorismoaren atentatu bateko biktima izan zen. Beldur handia pasa genuen. Hamabi hilabeteko epean 7 lagun hil zituzten Hernani inguruan, Buruntzaldean, eta jende ezagun eta herrikoiairen kontra egingo zutela zirudien, eta Hernani aukuratutako herria zela. Ordurako, txaranga ezagunena gurea zen, eta Hernaniko bakarra bertan, ni. Eta Margari (emaztea), Aina-rarekin haurdun. Zapa hil eta egun gutxira bilera egin genuen txarangako kideok, jarraitu edo ez erabakitzeke. Musikari pare batek utzi egin zuten; normala. Jendeak jarraitzea animatzen gintuen. Urte hartan bertan idatzi nuen *Zapa* kalejira, eta izen bereko beste kantu bat, *Diamantes* berbenarekin jotzen nuena, Luis Granderekin». Gainerako heriotzen artean denetik izan dute: gaixotasunak eragindakoak, ezustean harrapatu dituenak... «Ginga jarri diona, azkena, Landerrena» dio, minbiziak jota 26 urterekin hildako tronboi-jole lesakarra gogoratuta. «Baina, 50 urtetan, non ez dira izan horrelako kasuak?».

Aldaketen aurrean, eutsi

Baina jarraitu zuten. Noski, ez aldaketak egin beharrik izan gabe. Taldekideei dagokienez, «hasieran jendea bizi osorako sartzen zen txarangan, eta erretiratzen zen nahikoa zenean. Baina 90eko hamarkadan modu desberdinean hasi ginen». 20 bat urteren bueltako jendea sartzen

«Txarangaren soinua aldatzen hasi zen, txarangek ez baitzuten entseatzen, eta ez baitzituzten musikari berak mantentzen»

hasi zen orduan, ikasten aritu eta lana bilatu bitartean aritzen zirenak.

Errepertorioan ere izan du horrek eragina. «Etortzen diren musika maila gero eta handiagoa da, eta horren eraginez, egiten ditudan konponketak ere gero eta indartsuagoak dira. Momentu honetan denetik daukagu errepertorioan: musika herrikoia eta kalejira, jota eta arin-arinak; mexikarrak, gure indargune eta adierazgarri direnak; rock and rolla; pasodobleak; swinga; 80eko kantuen pot-pourriak... Ikaragarritzko karpeta daukagu!». Ondo funtzionatzen dutenak ez dituzte baztertu, hala ere. Kalejirak, jotak, arin-arinak... Horiek jo behar dira. Are gehiago, Hernanin, gehien dantzatzeko dema herria baita. Ohiz kanpoko herri aparta da. Hernani da gehien dantzatu eta jende gehien biltzen den herria. Gure adierazgarri dira musika herrikoia eta mexikarra. Eta jotzen ditugu cumbia, cha-cha-cha edo samba; Glenn Miller; udako modako kanta batzuk; ska, pot-pourriak

«Hernani da gehien dantzatu eta jende gehien biltzen den herria»

edo Gloria Estefan eta Juan Luis Guerrarenak... Sinkopa asko eta lan handia daukate, baina kide gazte indartsuak dauzkagu. Baina elektrotxarangetarako afizioa gero eta handiagoa da. Hernanin, koadrilen egunean, batez besteko adina 40 urteren bueltakoa izaten da, nahiz eta kalea bete egiten den eta ikaragarri gustura jotzen dugun. Horregatik, gazteei gustatzen zaien errepertorioa jotzen hastearekin zalantza egiten dut».

Egoera bera aldatu egin da, gainera. «70-80eko hamarkaden artean urtean 120 data izaten

genituen. Baina 2008ko krisiak eragina izan zuen. Orain badira gazteak, herriz herri 600 euroengatik jotzen dutenak, eta lehen txarangak hiru egun egiten zuten herrietan, orain bakarra egiten du; noski, gizarte segurantzaren abar gehituta, aurrekontuari ere gehitu egin behar diozu, eta 1.300-1.400 euroren artean gertatzen da. Oraindik horren bueltan mugitzen gara, baina auskalo».

Arima eta marka aldaketa

Aldaketa guztien aurrean, 50 urtez segitzea lortu dute, hala ere. Eta asmatu dutenik, ezin uka. «Guk gure marka izan dugu, eta gainontzekoek kopiatu egin digute!».

Horretan, Canariok berak izan du zeresana, nahiz eta berak nahiago duen inguruko gaitasunak azpimarratu. «Incansablesen errepertorioaren %90 inguru

nirea izango da, 2016ra artekoa, baina etorri dira gazteak beste kantu batzuekin, eta indartsu ari dira. Etorri berriak, normalean, nahikoa izaten du errepertorioa ikasi eta jotzarekin, baina, hauek, denetik egiteko gai izateaz gain, artista hutsak dira!».

Badirudi, hortaz, badatorrela aldaketa. 50 urte nahikoak dira! Horrekin txarangaren izaera aldatuko da? Ez dakit. Baina, uste dut positiboa ere ez dela gazte betetako herri batera iritsi eta haiek pentsatzea: «zer egiten du XVIII. mendeko agure honek hemen?». Traba egiten hasiko naiz! Gainera, giltzurrunak, artrosi krisiak hezurretan... Hori ez da sendatzen. Amak esan zidan berak zuen guztia utziko zidala oinordetzan!».

Hasi etxetik, eta buelta

Hain zuzen, etxean hasi zuen musika ibilbidea, eta etxean



1970. Amaya taldea; baterian Axintxio Barrenetxea, eta saxoan, Canario.



Incansables txaranga Laurent Jalabert txirrindulariarekin, 1994ko Itzulian. Canario, Jalaberten ondoan.



Incansables txaranga Tolosan, 1974ko Inauterietan. Canario, aurrenekoa.



Incansables txaranga, 2015.



Hernanin, Floridako festetan, 2000ko ekainaren 10ean.

Incansables txarangaren 50 urteak biltzen dituen diskoa

Txarangaren ibilbidearen adierazgarri diren piezak bilduko dituzte bertan, historia jasotzen duen liburuarekin batera argitaratzeko.

INCANSABLES BILDUMA

Asmoa zen Incansables txarangaren ibilbidea laburbiltzen duen diskoa eta liburua maiztza aldera argitaratzea. Koronabirusak dena hankaz gora jarri du, ordea, eta oraindik ez dakite oso ondo noiz argitaratu ahal izango duten.

Dena den, materiala prest daukate, eta bilduman zer jaso nahi duten ere bai. Canariok, Incansablesen 50 urteak bertan bete dituen bakarrak, aurreneko pertsona kontaktuko ditu hainbat bizipen, txarangaren historian zehar gertatutakoak. Musikari dagokionez, 50 urte horietako doinu esanguratsuenak edota ibilbide horretan esanahi bereziren bat hartu dutenak sartuko dituzte. Gehienak, nola ez, bereak. Bederatzi bat piezako diskoa izango da. Horrela azaltzen ditu berak pieza bakoitzak daukan esanahiak eta horiek aukeratu

izanaren arrazoiak.

1. *El Zapa* (Martxa): 96an grabatutako *Leitzaz gero 25 urte* diskotik hartua. «Soinu zaharra nabaritu da, soinu kalitatean izan den aldaketa jasotzeko».

2. *Leitzako herriari*: 1995eko ekainaren 18an, Incansables txarangaren 25. urteurrenaren harira, omenaldia antolatu zen Leitzan. «Emazteekin joan ginen eta festa handia izan zen. Horregatik, pieza hau egin nien, opari». Partitura Leitzako herriari eman zitzaion, eta alkateak jaso zuen.

3. *30 años* (Corrido). *Giro Bero* diskorako 2000an grabatutako *corrido* mexikarra.

4. *Zapatan Rapsody Opus. 40*. 2010eko 40 urte diskoan jasotako baltsa.

5. *Txomin*. «Sietemesinori

egin nion habanera. Zapa bezala, sortzaileetako bat baita, hilda dagoena».

6. *Dulce condena de oro 2015*. «Francisco Esnaolak 50 urte egin zituen ezkontuta. Oso ondo konpontzen gara, eta Tolosan elkarrekin jotzen jarraitzen dugu. Balts hau egin nion».

7. *Orbagur 50*. «Nire agurre-rako egin dut. Ainara berehala konturatu zen izenak zer gordetzen duen: alaben abizenak, Ortega eta Barrenetxea. Martxa hau egin dut, hiru laukoan. Ez da baltsa!».

8. *Los Incansables*. 40 urte diskoan jasotakoa, «diskoa ixteko».

9. *Musika, maisu*. Balts peruarra. «Ainarak Landerrri (bikotea) egindakoa. Gogorra izan zen».

bukatuko du. «Musikari familia izateaz harro nago. Gainera, amaren eta aitaren maila gainditu dute, eta nola! Izan ere, a ze belarriak dauzkaten bi artista hauek!». Alabez ari da. «Eta arduratuta egon nintzen! Margariri esaten nion: 'musikarako gorra ateratzen badira, tripak jan beharrean izango naiz!'. Ez dago horretarako beldurrik.

Lanak bukatu dituela esatea, ordea, gehiegixko da. «70 urte egiteko bidean naiz, eta hori ezin da konpondu! Jotzen 50 urte egitea ere, zenbaki borobila da.

Egia da zerbait egiten jarraituko dudala... Fabrikan tornuarekin aritu denak bai, baina musikariak, horrela, dena kolpean uztea... Beste mundu bat da!».

Etxean ere, alabekin hasitakoa nola jarraitu ere badu. Saxoa edo helikoiaren ordez, ohikoa da orain, Canario biloba txikia besoetan duela ikustea. Incansablesen doinuak kantatzen dizkio belarrira, hark burua sorbalda gainean jartzen diola. Aitonaren kontzentrazio aurpegi bera jartzen zaio. Hau ere ez dator gorra, alajaina! **K**

Ariketa matematikoa

x

/

2

=

8

+

+

+

+

-

=

1

+

-

-

/

x

=

3

=

=

=

9

9

8

Sudokua

					1			
	2			7		4		
5		7			3		6	
			9				5	
8			6		2			9
	3				4			
	7		3			2		8
		6		2			7	
			5					

Mezu sekretua

-----,

-----.

AOKS OILBA UD KANDIRRA,
HIAOGGE RUBU KZRRAAAK.

SOLUZIOA
Asko balio du indarrak, gehiago buru
azkarrek.

Ezberdintasunak

Labirintoa

Ekuazioa

A	O - N	
C	L + T	
E	L - N	
H	N + C	
I	A - N	
L	I + R	20
N	E / O	2
O	I + T	
R	L - I	
T	L / I	4



Irudi engainariak

Hamar zati hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Bilatu

Bada gauzatxo bat irudian, inolaz ere agertu beharko ez lukeena, garai hartan asmatu gabea zelako. Zein ote da?

Pertsonaia honen eta irudi nagusiko bere bikiaren artean dauden



aldeak aurkitu behar dituzu. Hamabi dira guztira.

11+1

G		T	I		E
			P		T
O		I		P	
			E		
		P			
I	O	E	G		P

Sudokua

Konturatuko zinenez, orriotako jolas guztiek Antzinako Egipton daude girotuta. Osa ezazu sudokua EGIPTO hitzak dituen hizkiekin (E, G, I, P, T eta O). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

EGILEA: Garbine Ubeda (Aurti)
TOKIOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin itakuri



«Aurreneko jardunaldian, Kontxan, zegoen isiltasunak beldur pixka bat ere ematen zuen»

Tolosaldea, Hibaika eta San Juanen banatuta dauden hamar neska hernaniarrak edo 'Maialen' en arraunean aritutakoak modu berezian ari dira bizitzen Donostiako estropadak.

HERNANI ARRAUNA

Kontxako Banderaren aurreneko jardunaldian bost neska hernaniar eta pasa den urtean *Maialen* traineruan aritu ziren zortzi daude Tolosaldea, Hibaika eta San Juanen banatuak.

Estropadan Tolosaldeak laugarren amaitu zuen; Orio, Donostiara eta Arraun Lagunak-en atzetik eta lehenengo postutik 17 segundora eta hirugarren postutik lau segundora. Hibaika ez dabil urrutit Tolosaldeatik -seigarren- hiru segundora eta San Juanek itxi zuen sailkapena 40 segundora. Tolosaldearen helburua hirugarren postura iristea izango da eta Hibaikak lehendabiziko lauretan sartzea.

«Helburua postua irabaztea eta disfrutatzea»

Tolosaldea dabil Eider Barba. 21 urte ditu eta 2012an hasi zen Hernanin arraunean. Herriko klubean ibili zen 2016 urtera arte eta ondoren kanpoko bidea hasi zuen. «Hasieran Santiagotarrak-en, ondoren bi urtez Ur-Kirolak eta Donostiarran eta aurtent Tolosaldeako talde gaztean» ari da arraunean. Aulki mugikorra egin du eta dagoeneko esperientzia handia du arraunean. «Helburua hirugarren postu hori» dute igandean. Berarekin batera dabil Itxaso Aranburu tolosarra, baina *Maialen* traineruan ere ibilia pasa den urtera arte. Ezusteko haundi bat ematekotan egon ziren eta estropada oraindik eta hobia egiten saiatuko dira.

Hibaikako traineruko partaide dira Jone Pastor, Nerea

Irastorza, Uxue Alberdi, Garazi Arabiatore eta Estitxu Zabala. Hernaniko ordezkariak dira Errenteriako ontzian eta aurreneko jardunaldian estropada ederra egin zuten Orio eta Donostiarratik ez oso urrutit. Nerea Irastorza donostiara da eta Arraun Lagunak-en aritu eta gero *Maialen* traineruko partaide izan da. Igandean, Hibaikako traineruaren barruan zijoan. «Jone Pastor, Uxue Alberdi eta nik egin genuenean arraunean lehenengo jardunaldian. Play-offetako aurkarietatik oso gertu geratu gara. Helburua orain txanda irabazi eta Hondarribia eta Tolosaldeari aurrea hartzea izango da. Kontxan dena da posible». Aurtengoa hirugarren Kontxa du eta «isiltasun gehiegi dago eta beldur pixka bat ere bai» dio Nerea. «Oso arraroa da aurtengoa».

San Juanen Naroa Lizarreta da ordezkari hernaniarra eta berarekin batera *Maialen* ibilitako Olaia Barriuso eta Nahia San Argimiro donostiarrak daude. Kontxan egotea zuten helburua eta sailkatzearekin bete zuten. «Igandean bagenekien zaila izango zela. Sailkatzea izugarrizko poza izan zen eta helburua bete genuen. Orain disfrutatzeko tokatzen zaigu».

Lehendabiziko aldiz ari da Kontxan arraunean eta hori beti da berezia. «Pena da jenderik ez egotea, hori ere Kontxa baita, baina pasa den urtean Hernanirekin ez ginen sartu eta aurtent bertan egotea pozgarria da». Pandemiaren eraginez «ezin izan nuen lanean hasi eta Nahiaren bitartez hasi nintzen San Juanen. Gustora gabiltza». **K**



Nerea Irastorza, Garazi Arabiatore, Jone Pastor eta Estitxu Zabala Hibaikan. Uxue Alberdi falta da argazkian.



Olaia Barriuso, Naroa Lizarreta eta Nahia San Argimiro San Juanen.

XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTA TXAPELKETA
KUTXABANK SARI NAGUSIA

Irailaren 12a

HERNANIARRERAK
SARRERA

5 €

1. PARTIDA / 16:00-etan

ZALDUA II vs URRUTIA II
AIZPURU III LABAKA

2. PARTIDA / 17:00-etan

BARRENETXEA IV vs URRIZA

3. PARTIDA / 18:00-etan

ANSA II vs JUANENEA
LARRAÑAGA ENDIKA



Pelotadenda.com



kutxabank



Barrenetxeak garaipenarekin esan nahi dio gaur agur Kutxabank Torneoari, Urrizaren aurka

Txapelketaren finalerdietako ligaxka amaituko da Galarretan, eta atzelari hernanirrak ez du aukerarik finalerdira edo finalera sailkatzeko lehenengo bi partidua galdu eta gero, Juanenea eta Endikaren kontra.

HERNANI ERREMONTEA

Urtebetean gauzak asko aldatzen dira. 2019ko irailaren bigarren larunbatean Endika Barrenetxeak buruz buruko txapela jantzi zuen lehenengo aldiz, javier Urriza 27-30 gainditu eta gero. Gaur berriz ere, iraileko bigarren larunbatean, Barrenetxea eta Urriza elkarren aurka ariko dira Kutxabank Torneoan, baina helburu oso desberdinekin. Urrizak finalerako txartela lortu nahi du eta Barrenetxeak ez du ezerez jokatzeko.

Finalerdietako ligaxkaren seigarren eta azken jardunaldia jokatu da. Atzelari hernanirrak lehendabiziko bi partidua galdu zituen Juanenea eta Endikaren kontra eta aukerarik gabe geratu zen gaurko partidua jokatu aurretik. Gogorra da txapel-

dun izan eta hortik urtebetera, faboritoetako bat izanda, dagoneko kanpoan egotea, baina partiduari aurre egin behar zaio.

Barrenetxea txapelketako lehendabiziko garaipena lortzen saiatuko da. Ez da erraza izango, aurrean dagoen aurkaria markadako erremontistarink hoberena eta nagusia baita, Javier Urriza iruindarra. Gainera aurrelari nafarrak jokoan, zuzenean, finalerako sailkatzea baitu. Finalerdiak ziurtatuak ditu, baina finalera zuzenean sartzeko 17 tanto egin behar ditu derrigorrez. Ez da helburu zaila eta eskuan du Urriza, baina hala ere tantoak lortu behar ditu.

Barrenetxeak aurtengo txapelketan ez du azken urtean eman duen maila eman. Arantza atera nahiko du eta Urrizaren aurka hirugarren garaipena



Aurtengo txapelketako azken partidua jokatu du Barrenetxeak.

jarraian lortu. Pasa den urteko finalean eta Banakako Master txapelketaren finalean 30 tanto iritsi zen Barrenetxea, ezustekoa emanez eta bi txapela lortuz.

Urrizak maila bikaina erakusten ari da txapelketa guz-

tian zehar eta zazpigarren txapela eskuratu nahi du.

Partiduan zuzenean streaming bidez YouTube-n

Lehenengo aldiz Oriamendik zuzenean eskainiko ditu bana-

kako eta hirugarren partidua. YouTube-ko Galarreta Jai Alai kanalean, <https://www.youtube.com/channel/UCTld-rLHVC-ki29Lzmkyjwug>, eskainiko da eta Oihane Mateos eta Gaztelu izango dira narratzaileak. **K**

Igeriketa denboraldiaren hasiera etzi astelehenera atzeratu dute

«Gure gain ez dauden gauza asko daude oraindik finkatzeko piszinaren erabilera arautzen duen entitatearekin eta zain gaude» dio taldeak.

HERNANI IGERIKETA

Igeriketa taldeak irailaren 14ra, astelehenera, atzeratu behar izan du 20-21 denboraldiko entrenamenduen hasiera. «Gure gain ez dauden gauza asko daude oraindik ere finkatzeko piszinaren erabilera arautzen duen entitatearekin eta zain gaude. Guztion segurtasuna bermatzea

da helburua eta lehentasunetako bat».

Monoaletak eta artistikoa edo sinkroa, jarduera osagarri

Ura eta uretan ibiltzea gustuko duten 8 urtetik gorako neska-mutilak animatu nahi dituzte taldean igeri egitera eta igerilekuaz gozatzera. Aurten, gainera, nobedade bezala, gazteenek

aukera izango dute monoaleta eta sinkroa ere probatzeko. «Monoaletak eta sinkroa jarduera osagarriak izango dira, gazteenek egingo dituztenak, hilean behin».

Interesatuta dauden guztiak igeriketahernani@hotmail.com helbidera mezua idatzi dezakete. «Zuekin harremanetan jarriko gara eta beharrezko xehetasun guztiak emango dizkizuegu. Anima zaitezte eta etorri probatzera. Konpromisorik gabe, iraila doan; jarraituko ez balute, ez da ezer kobratuko». **K**

Errugbi denboraldia oraindik ere zalantzan

Federazioaren berririk gabe jarraitzen dute taldeek egutegi berriaren inguruan eta ez dago argi zer gertatuko den.

HERNANI ERRUGBIA

Espainiako errugbi denboraldia, maila desberdinetan, oraindik ere zalantzan dago. Urriaren 11era atzeratu zen txapelketa desberdinen hasiera, baina oraindik ez da egutegia egin eta bertan behera geratzeko aukera indarra hartzen ari da azkenaldian.

Bitartean, denboraldia noiz eta nola hasi jakin arte, Espainiako Errugbi Federazioko lan-taldeak, Covid-19ren ondorioz lehiara itzultzeko, kontzientiazio-kanpaina bat abiarazi du en-

trenamenduetara eta eskoletara itzultzeko. Kanpaina horretan, jokalariek guztien eta haien entrenatzaileen erantzukizunean eta konpromisoan konfiantza duela adierazi du.

18 urtez azpikoen akademia entrenamenduetan

Hernaniko taldeak 18 urtez azpikoen akademia martxan ere jarri du. «Proiektu zinez interesgarria eta aurrerakoa errugbia garatzen joateko» adierazi dute Hernaniko klubetik. Entrenamenduak pasa den irailaren lehen hasi zituzten.

Hala ere, proiektu interesgarri honen bideragarritasuna aztertzen ari dira, jarraitzea posible den edo ez jakiteko. Erabaki hori erabaki desberdinek baldintzatzen dute eta konpetizioak egongo diren jakitea ezinbestekoa da. **K**

EGURALDIA

GAUR

Udako giroarekin jarraituko dugu gaurkoan. Zeruak oskarbi edo hodei gutxiarekin egongo da, baina goizean behe-hodei batzuk ager daitezke. Hala ere, tenperaturak gora egingo du. **Min.13° / Max.21°**

BIHAR

Biher beroa izango dugu hizpide. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da eta tenperatura 35-36 °C-ra igoko da hainbat lekutan. Zeruak hodei gutxiarekin egongo da. **Min.16° / Max.25°**

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta)

UDALZAINGOA 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)

DYA 943 464622

AUTOBUSAK Garayar: 943 556658

Areizaga: 943 452708

Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037

JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103

ANBULATORIOA 943 006666 - 900 203050 (Hernani)

943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)


FARMAZIAK

Geguez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**

Gauzez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**

Goizueta: Nagusia 64 948 514353

Emakume euskalduna behar du adineko pertsona bat zaintzeko, esperientziaduna. Gizarte Segurantzaren ordainduko zaio. **Deitu: 650 015 489**
Iñigo Royo Masajista. Masajista, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



«Hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa da»

Azaroan hasiko da hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala, eta Hernaniko talde askok eman dute parte hartzeko izena.

HERNANI EUSKARALDIA EUSKARA ARI DU

Duela zenbait hilabete ireki zen aurtengo Euskaraldia Euskara Ari du ekimenean parte hartzeko deialdia. Arrakasta haundia izan du aurtengoak, talde asko animatu direlako hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa sozialean parte hartzera. Hala ere, izena eman ez duten entitate edo taldeek oraindik aukera dute inskribatzeko.

Izan ere, aurtengo izena emateko epea irailaren 27an bukatuko da. Parte hartzeko izena eman daiteke ondorengo webgunean: <https://euskaraldia.eus/ariguneak/>.

Abuztu hasieran jada 50 entitatek eman zuten izena ekimenean, eta ordutik beste hainbat ere animatu dira parte hartzera. Hernaniko talde ugari daude zerrendan: talde soziokulturalak, kirol taldeak, auzo taldeak, elkarte gastronomikoak, dendak, tabernak, jatetxeak, enpresak... Guztiek batera egingo dute hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa, azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean.

Txistulari Bandako kideak ahobizi izango dira, eta zehaztu dute beraien arigunea edo «euskaraz lasai hitz egiteko gunea». Beraiekin batera beste asko dira dinamika hau bi astez jarraituko duten herriko taldeak: Elkar liburu denda, Berriak Merkataria eta Ostalari Elkartea, alderdi politikoak, Mahuka edo Kera bezalako arropa denda, Aizpuru farmazia edota 11 korapilo eta Makoki ileapaindegiak. **K**



Txistulari Bandako kideak, arigunea, ahobizi eta Euskaraldia Euskara Ari du ikurrekin.

